



2016KO APIRILAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Ane Irastortza Izagirre zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko martxoaren 18an egindako bilkurako akta.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du, argiteriaren gastua handia iruditzen zitzaio-
la esan zuenean gabonetako argiteriaz ari zela.

Hau honela jasota, gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da bertara-
tutako guztien adostasunarekin.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 18 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EU-RO ETA HOGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (34.387,31 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeeko Laguntza Zerbitzua.-

11-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea 2016ko apirilaren 6tik aurrera, laguntza pertsonalerako, astean 6 ordutik 11 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostua-
ren %24 izango da.

Ifarra-Hegoa lankidetzeta programa.-

2016. urteko Ifarra-Hegoa laguntzaren deialdia egitea.

Goierriko Karitas Elkarteari diru laguntza.-



Goierriko Karitas Elkarteari mila eta bostehun euroko (1.500,00 €) diru laguntza ematea, baratza eta hizkuntza tailerra aurrera eramateko.

IV.- KIROLDEGIKO 5. FASEAREN PROIEKTUA IDATZI ETA, BEHARKO BALITZ, OBRA ZUZENDARITZA ERAMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEKO BALDINTZA PLEGUEN AURKAKO HELEGITEA .-

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK, NIF Kodea Q-4875004-F, eta bere ordezkari Matxalen Acacuso Atutxa Andereak, NA zbkia. 30640809W duenak, 2016ko martxoaren 14ko data daraman eta udaletxe honetan 2016ko martxoaren 16an sarrera izan duen idatzia aurkeztu du.

Idatzi horretan esaten du Lazkaoko Udalak Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldetgiako 5. fasearen oinarritako proiektua eta 5.1 fasearen burutze proiektua idazteko, hala nola, eta bere kasuan, 5.1 fasearen obra zuzendaritza eramatea lanak kontratatzeke egindako deialdiaren aukarko birjarpen helegitea tartejartzen duela.

Udal honek, birjarpen helegite honen aurrean, dagokion txosten teknikoa egin du.

Guzti hau honela, eta bai helegitea bai helegite honen aurrean egindako txosten teknikoa aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabakitzen du:

Lehena.- Lazkaoko Udalak, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldetgiako 5. fasearen oinarritako proiektua eta 5.1 fasearen burutze proiektua idazteko, hala nola, eta bere kasuan, 5.1 fasearen obra zuzendaritza eramatea kontratatzeke onartutako Baldintza Administratibo Partikularren Plegua, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak tartejarritako birjarpen helegitean argudiatzen diren zioei dagokienean, zuzenbideari lotzen zaiola eta ondorioz birjarpen helegitea ezezte, .

Bigarrena.- Eskatutako bada ezpadako bertan behera uztea ez ontzat ematea.

Hirugarrena.- Hala ere, esandakoak esanda, eta aipatutako Baldintza Administratibo Partikularren Pleguaren zehaztapan batzuk Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bategindako Testuaren aurreikuspenekin bat ez etortzea baliteke eta, deitutako lizitazioa bertan behera uztea.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak jarduera ekonomikoa bultzatzeko pertsona baten kontratazioari buruz jarraitutako prozezuaren berri ematen du.

Aran zinegotziak (EH bildo) IKEIk egin duen txostenaren kopia bat eskatzen du.

Bestalde, Alkateak aurtengo San Prudentzio jaien egitarauaren aurrerapenaren berri ematen du.

Aran zinegotziak San Prudentzio goikaldean Olaberrira dihoan bideke espaloien birurbanizazio lanak nola daudenari buruzko informazioa eskatzen du.



Alkateak eskatutakoari erantzun egiten dio.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko lauak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, partially overlapping the official seal.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.